

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

46. zenbakia

94ko apirilak 29



Lazkao festetan



ZURICH
ASEGURUAK

GURUTZ BARANDIARAN


Tfnoa.: 88 88 92

Faxa: 88 88 92

Esteban Lasa, 7 - 1. C

BEASAIN

Festa onak pasa!



HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

Madalena, 2 - Tlf. 88 19 95 LAZKAO



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

M. ARTOLA
MODELOAK

Modelo eta fundiziorako plaken tailerra

Zubi-Erreka z/g

☎ 88 79 30

LAZKAO



MAPFRE

Urteberri on!

Hirigoien, 18
Tfinoa: 16 13 61
LAZKAO

bortako

OILOTEGIA

**Eguneroko
arraultza
ezinobeak**

Elosegi, 25

☎ 16 09 71

LAZKAO

Lazkaotarroi jai zoriontsuak
opa dizkizuegu



LAZKAOKO UDALA



ARAKAMA HARATEGIA

San Prudentzio - Tel.883352

Elosegi - Tel.880720

Uhaitz - Tel.889314

LAZKAO

ITOL, S.L.

⇒ Pinturak:

* Dekorazioa

* Industriala

⇒ Tresnak

⇒ Makinaria

Tfinoa. eta faxa: 88 65 63

Hiribarren, 24

LAZKAO



Mundu-Bi

Berebilen elektro konponketa

Hiribarren, 17
Tfinoa: 88 74 58

LAZKAO

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

46. zenbakia. 94.eko apirilak 29. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre, Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Gurutze Aldabe, Aitor Calvillo, Gabino Murua, Xabier Glez, Ezama, Nagore Goiburu, Arantxa Goiburu, Joseba Telleria, J. M. Ormazabal, Ibai Ertz, Pilare Mujika eta Rufino Iraola.

Azala eta zenbait argazki: Dioni

Fotokonposaketa eta maketazioa:
GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)



ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Erdiko gehigarria: Lazkaoko festak

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Beasain eta Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *Goiztiri AEK Euskaltegiak goierritarrei*

9. besteek esana, inkesta: *Lehen jaunartzea bizirik al dago?*

10. Goierriko berri: *Euskal y grekoa, e. a.*

12. Elkarrizketa: *Rosa Mari Zubiarrain: "Gogorra zen jardutea, Ruandan gauzak zeuden bezala"*

14. hemen eta orain: *IV Gerriko Ikerlan Sariketa*

15. herriz herri: *Ataun, Ezkio-Itsaso, Zegama, Segura, Olaberria, Gabiria, Ordizia, Beasain, Zaldibia eta Le gorreta*

22. kirola: *Bi lerrotan*

23. musika: *Ordiziako San Jose Erresidentziako Abesbatza*

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasotzen du

**GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU**

Nola aldatu diren gauzak...

Oraindik gaztea naiz. 60. hamarkadan jaiotakoak zaharrak garenik ezin esan... Hala ere hainbat gauza "garai batean" zein desberdin ziren datorkit gogora.

Orain 10 urte Estanko tabernaren aurrean egotea, astegunean eta eguerdiko 12etan, ikusgarria zen: hango txirrindua eta txirrindulari pasadizoa! Eta ez Euskadiko Itzulia, Vuelta a España edota inongo Tour edo Girorik pasatzen zelako, ez, baizik eta Fabrika-haundiko (CAF) adarrak jo eta zalapartaka etortzen zirelako langileak beren etxeetara bazkaltzera: lazkaotarrak eta ataundarrak nahasian. Orduan oraindik bide berria egin gabe zegoen eta ataundar zein lazkaotar guztiek derrigor Estanko aurretik pasa behar, bide zaharretik.

Ikusgarria benetan neguko hotzetan eskularru, txano eta bufandak jantzita, euritan euritako kapaz eta udaberri-udan, berriz, maka-hutsetan txistua joz banaka, nahiz kontutan binaka nola etortzen ziren. Gaur egungo hainbat txirrindulari-froga profesional baino ikusizun politagoa neretzat.

Izan ere gaur egun Fabrika-haundiko, eta gaineratiko lantoki eta tailerretako langileak kotxez joaten dira lanera, norbera bere kotxean noski!, nola ba piska bat antolatu eta auzokoekin txandaka kotxea bete lagun joaten saiatu...?

Orain ataundarrak bide beretik joaten

dira Atauna, Lazkao herritik pasa gabe eta ez ditugu ikusten nola joaten diren, baina inor joaten ote da txirrinduz?

Benetan pena ematen didala jendeak kirola egin nahi duenean horretarako propio erositako arropak jantzi, kiroldegira joan, kotxez noski!, eta hantxe izerdia botatzen duela ikusteak. Batera eta bestera joaten garenean derrigorra al da beti, beti eta beti kotxea garajetik ateratzea?

Egia esan, politikoen aldetik ez dugu laguntza handiegirik jasotzen, hirigintza arduratzen direnek ez digute nahita ere modu horretara bizitza antolatzen uzten: non dira bide gorriak? non autobus, tren eta gaineratiko garraioak? Izan, badira, baina benetan fundamentu eska-sekoak. Non dago garraio publikoa indartu, hobetu eta bultzatuko duen politika? Eta inor ez dadila etorri Abiadura Handiko Trena badatorrela esanez, horren truke egungo tren zerbitzua, bertatik bertakoa eta geltoki guztietan geratzen dena kenduko digutela bai bait dakigu aurretik. Betikoa: bidaia luzeak eta bizkor egin nahi dituzten pertsona bakanentzat mesede eta herri xumearen kalte-tan...

Lehen ere trenak, kotxeak, bizimodua eta gure nerbioak ere "abiadura handian" maizago ibiltzen dira bai, lasai eta patxadan baino...

Mendi-izen egokien bila

Azkeneko GOIERRITARRAko "Txindoki ala Narrunarri?" idatziri lagundu nahiean lau hitz. Guk, Txindoki izenarekin ezagutu genuen mendi-gailur hori; baino gure aurrekoek Larrunarri edo Ñañarri deitzen zioten. Txindoki, hor adierazten den bezala, Larrunarriko maldan dagoen artzai-borda bat da. Hor garai batean festa, jai edo erromeri bat egiten zen (San Pedro egunean, uste dut). Hortik etorri liteke edo dator "Txindokira noa" edo "Txindokin egon naiz", Larrunarri joaten zirenak esaten zutena. Niretzat mendi-gailurraren izen egokiena Larrunarri dela iruditzen zait. *Larrunarri = Peña pelada*. Ñañarri bai izan daiteke Narruarri = arri txikia (1) edo Narrunarri izenaren laburpen bat.

--(1) Aralarreko mendikatean 10 edo 12 bait dira bera baino altuagoak--

Beno, eta gai honekin lotuta baita ere, beste mendiko izen bat jarri nahi dut palestran, Usurbe. Mendi-gailur honen izena maldan dagoen baseritik hartuta dago. *Bek* atzizki bezala, beheko, azpiko zerbait adierazi nahi du. Orduan inoiz ez da izango goiko edo gaineko ezer. Usurbe baserriaren izena bai, Usur behekoa da. Mendiaren izena Usur izan daiteke? Hor uzten dugu galdera edo lana jakintsuago batzuentzat, hau nolabait argitu dezaten.

Pedalarri (Lazkao)

Mendizale bat

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAK

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

DE LA CUESTA

**Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia**

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

URBITARTE Sagardotegia

-Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik as-
teburuetan betiko sukaldaritzarekin



Enkarguak: 888331
ERGOIENA AUZOA
☎ 882719 ATAUN

**gaur
express
mezulariak**

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38

Agenda

Intereseko

Telefonoak

Idiazabal

(Telefono aldatu berriak)

Herri Eskola:187151
 Mediku etxea:187073
 Kultur etxea:187099
 Pilotalekua:187074
 Zelaako Kiroldegia: ..187118
 Pake Epaitegia:187164
 Udal-idazkaritza:187100
 Udaletxea:187170;
187123; 187247.
 Jubilatuen egoitza:187218
 Kutxa:187166
 CLP-LKA:187114



Errezeta



Mari Jose Aldasorok emana

Toki-Alai jatetxea Arama

ERREKAKO KARRAMARROAK

Osagaiak: Karramarroak (kangrejuak), olioia, tipula, baratxuria, perrejila, tomatea, piper berdeak, ardo txuria, pikantea.


Buztinezko kazuela batean ipintzen da olioia sutan. Bertan tipula haundi bat

botatzen da zati txikitara zatitua, lau baratxuri ale, pipar berde eta pipar bixi (pikante) bana. Guzti hau prejitua dagoenean, saltsarekin batera karramarroak ipintzen dira, saltsarako tomatea eta ardo txuria erabiliz.

20 bat minuto inguru behar dira hau egiteko. Ondoren zerbitzatu.



Bota bertsoa



Jon Lasa

Gaia: San Prudentzio jaiak Lazkaon

Herriko festak iritsi dira pozez beterikan gaude prozesiyua! falta zitzaigun aurten hori gure alde San Prudentzio egunez ziran bertsolariak non daude? Ohitura zaharra, ohitura berri zahar zena nobedade San Prudentziok iraungo ahal du bate pixik egin gabe

Plaza erdian gabiltzanean dantzan jira eta bira pentxa dezagun gure artean beste batzuk falta dira gartzela zulo, erbestetikan denak honuntza begira askoz hobeto egingo genun fandango ta kalejira hemen ez dauden guzti guztiak hemen egongo balira

LEKIM HARROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Ibabe industrialdea, 11

☎ 16 12 83

LAZKAO

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
 Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g

☎ 88 80 23

LAZKAO



itzondo roztegia, C.B.

ATAUN S. MARTINGO
 BARANDIARAN Anaiak

Zubierreka z/g

☎ 160931

41 posta kutxa

LAZKAO

ZELATA TABERNA

LAZKAO

ESTANKO TABERNA

Odolkietan berezitasuna

Elosegi, 17

LAZKAO



ERROTAUNDI OKINDEGIA

Elosegi, 2

☎ 887490

LAZKAO

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAN. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Gazte langile batek baserri batean lan egingo luke mantenua, soldata txiki bat eta euskara ikasteagatik. Tfnoa.: 886732, Alberto.

Salerosketak

□Goierrri dut anuntzio. Euskara lagun duten enpresa, establezimendu, udal, zerbitzu eta profesionalek badute lekurik GOIERRITARRAN. Gure moduluen neurri eta tarifak 41. eta 42. zenbakietako 2. orrian daukazu zehatz. Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. GOIERRITARRAREN propaganda, ez garestiena, bai onena! Dei 889612ra lehenbaitlehen.

Etxebizitzak

□Pisu eraiki berria dut Beasainen alokatzeko. 3 logela, 2 bainugela, sukalde eta egongela, berogailua eta ur beroa gas naturalez, tarteka amoblaturik. Tfnoa.: 884954.

□Ordiziako Altamira auzoan guztiz amoblaturiko etxebizitza eguzkitsua alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua dituelarik. Interesatuek dei dezatela 885130 telefonora.



Egutegiak



□**BEASAIN.** "Beasain, gure alkateen ahotik". "Aigeala" Euskara taldeak antolatuta, Udalaren laguntzaz, **apirilak 29an**, ostirala, 20,00etan, Udaletxeko Batzar Aretoan Beasainek izandako 4 alkateen mahai-ingurua: Joan Lasa, Jose Antonio Imaz, Iñaki Erguin eta Jose Luis Arriola.

□**Maiatzak 2:** Komunikabide eta beasaindarri zuzendutako 94ko Loinatz Jaieen egitarauaren aurkezpen ofiziala, Udal Liburutegian 20,00etan; Ekuadorri buruzko diapositiba bildumaren proiektzioa Javier Fernandezek eskutik Batzarre Aretoan 20,00etan. Antolatzaile: AEK.

□**Maiatzak 3:** Marketeria ikastaroaren hasiera Ezkiaga auzo-etxean, 17,00etan; Hitzaldia: "Gure gizartearen balioak eta eskola"ri buruzko hitzaldia Javier Elzoren eskutik, Liburutegian, 19,00etan; "Goierrri Cho Oyu 93" diapositiba bildumaren proiektzioa Koke Lasa eta Rafa Berasategiren eskutik, Batzarre-Aretoan 20,00etan. Antolatzaile: AEK.

□**Maiatzak 4:** Energia aurrezpenari buruzko hitzaldia EPAn (Loinazpen) 16,00etan. Antolatzaile: Sasieta.

□**Maiatzak 7:** Rock kontzertua Loinazko S.M. Plazan, 20,00etan. Maiatzak 8: Dan-

tzari Txiki eguna. Dantzari txikien desfilea herriko kaleetan zehar 12,30etan. Aktuazioa S. M. Plazan.

□**ORDIZIA.** Inmakulada Alkorta eta Pilar Aramendiren pintura erakusketa **apirilak 28tik maiatzak 13ra**, Barrenan.

□"Poltsikoko ikuskizunak": **maiatzak 7:** "El cambiao", Melody Sisters; **maiatzak 13:** Musika, saltsa, boleroak,... Errekaren eskutik. Barrenan, 22,30etan.

□Terrorezko eta animaziozko zine-zikloa: ikus Herri Antzokiko egitaraua.

□**ZALDIBIA.** 93KO Santa Fe festetako bideoen emanaldiak, **maiatzak 2,5,9, eta 12an** arratsaldeko 5etan. **Maiatzak 13tik aurrera** "Euskal Herriko soinu tresnak" erakusketa Kultur Etxean.

□**Ihardunaldi Internazionalistak.** 30. larunbatean: Pintura eta idazlan txapelketen sari banaketa Beasainen. **Erakusketak, apirilak 26tik maiatzak 1era:** Atun, Irlanda; Legorretan, Marroko; Ormaiztegin eta Zegaman, Hegoafrika; Seguran, Bolibia. Bideoa: Olaberrian, Ekuador.

Ordizia/Beasaingo Goardiako botikak:

Apirilak 29: Atorrasagasti; **30:** Azpilikueta; **maiatzak 1-2:** Azpilikueta; **3:** Jauregi; **4:** Laurnaga; **5:** Cuesta; **6-7-8:** Arriola; **9:** Urbizu; **10:** Atorrasagasti; **11:** Azpilikueta; **12:** Jauregi; **13:** Laurnaga.

Ordiziako Herri

Antzokia: Ostirala 29, 10,15etan: "Evilio", "Perturbado" eta "Mirindas asesinas" laburmetraiak; ondoren "La secta" (Santiago Segura zinegilea izango da bertan). **Larunbata, 30:** "El hombre sin rostro", 7,30-10,15. **Igandea, 1:** "La fuerza de uno", 4,45; "El hombre sin rostro", 7,30-10,15. **Astelehena, 2:** "El hombre sin rostro", 7,30. Ostirala, maiatzak 6: "Baby Blood", 10,15; ostirala, maiatzak 13: Braindead, 10,15.

Mendizaleak: Ordiziako Mendizaleak: **maiatzak 1:** Lizarraga- San Donato-Unanua; **8:** Guardiaetxe-Hirumugarrieta-Amezketak.

Beasaingo Aitzgorri M.E.a: **maiatzak 1:** Donostia- Uliapasaia trabesia; **8:** Lizarrausti-Lareo-Zaldibia trabesia.

Idiazabal K.E.: **maiatzak 8:** Mendizaleen festa (8,30etan irteera).

Pausogaizto Goierriko mendizaleak: **maiatzak 7-8:** Txindoki eskalatzeo hastapen ikastaroak.

Modulo hau

3.000 pzta.

kostako zaizu

10 aldiz eginez gero

2.500 pzta.



ALKARTASUNA LIZEOA Kalitatezko Euskal Hezkuntza

- * 6.200 liburuz osaturiko LIBURUTEGI INFORMATIZATUA.
- * HIZKUNTZ LABORATEGIA eta NAZIOARTEKO ELKARTRUKAKETAK: Gales eta Oxford.
- * ORIENTABIDE Ihardunaldiak.
- * TEKNOLOGIA hezkuntza eta IRRATI zein BIDEO tailerrak.
- * Udako INGELERA IKASTAROK Bretainia Haundian.

Beraz... ZUK ZEUK ERABAKITZEN DUZU!
Maiatzaren 4etik 18ra arte izena emateko epea.

Ordiziako azken azoka



Arg: Gema Arrugaeta

Bertako produktuak: No-bedadeak: Piper txorize-roen landarak, 800 zientoa; piparrak, 600 zientoa. **Abereak:** Arkuma (135 buru), 450-460 pzta.-k. **Landarak:** tipula, tipula gorria, porrua 250 zientoa; azelga, letxua, 400-500 zientoa; tomatea, 30-40 takoa; baina, 20 takoa. **Barazkiak:** azaburua, 80-150; azalora 150-200 bakoitza; azelga 50-75 xorta; baratzuria 75-100 x.; baratzuri freskoa 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarruna beltza 700-900 k.; letxua 40-80 b.; kalabaza 125-200 k.; patata 40-50 k.; porrua 85-100 x;

Kanpoko produktuak: banana 225-250; kiwia 200-225; laranja 95-195; limoia 150; sagarra 110-195; udara 175-225. **Kanpoko barazkiak:** baba 175; horburua 350 dozena; Ilarra 425 k.; patata 60-85 k.; piper-gorria 425-475; berdea 200-225; tomatea 250; fre-soia, 325. **Arrainak:** amorraina, 600; bertako antxoa 600; antxoilu 1.020; bakailaua, 1.100; itsasoilarra, 1.020; izokina 1.300; kalamarra, 1.250; kariokita 850; mediana 1.280; perlita 420; sardina 480; txitxarroa 520-620; zapoa 1.180.

Gurutze Aldabe

Deialdiak

□ZUMALAKARREGI
MUSEOAK bere azken maleta didaktikoa aurkeztu du: Zumakit 3. XIX mendea, bi munduen arteko zubia. Zumakit linea honek Museoa ezagutarazi nahi du hezkuntza zein kultur zentruetan maleta autonomo eta eragileen bidez. Aurkeztu den Zumakit 3 honek XIX mendea ondarearen bidez ezagutarazi nahi du. 155 argazki dituzte: trena eta industrializazioa, burgesak eta arrantzaleak, karlistak eta liberalak, eraikin publiko zein pribatuak, ohiturak, komunikabideak, e.a. Argazkiak, Museokoak, pribatuak eta Gipuzkoako gaztetxoek egindakoak dira. Zumakit guztien mailegu modua berdina da: dohain, garraioa eskatzailearen kargu. Argibide gehiago Museora deituz: 889900.

□INFORMATIKA-IKASTARO subentzionatuak. Beasaingo Udaleko Euskara Batzordeak subentzionatu eta bertako Alkartasuna Lizeoak, Txindoki Institutuak eta Goierriko Lanbide Eskolak antolatuta, MS-DOS, Word Perfect 5.1. I eta II maila, DBASE III plus, DBASE IV eta LOTUS programetako ikastaroak emango dira. 20 ordu-

koak, edonorentzat eta merke. Informatzeko edo izenemateko dei Goierri Eskolara: 880062, Lizeora: 882684 edo Institutura: 880753.

□AUZOLANDEGIAK
GAZTEENTZAT Kultura Batzordearen eskutik jaso dugun txostenaren arabera, gazteentzako udako auzolandegien zerrendak atera ditu Euskal Gobernuak. Nahiz Europa aldean, nahiz Espainiako zenbait puntutan eta nahiz Euskal Herrian aritzeko aukera dute 18 urtetik 26ra bitarteko gazteek. Izen emateko epeak honela banatzen dira: nazioartekoetan partzeko: apirilaren 25etik aurrera; Espainiako Estatukoetan partaide izateko: maitzaren 2tik aurrera; eta Euskal Herrikoetan jarduteko: maiatzaren 9tik aurrera. Presentatu beharreko dokumentazioa hauxe duzue: NANren fotokopia, bi argazki eta ordainagiria (8.000 pezeta). Nazioartekoek beste kuota bat daukate. Informazio gehiago eta izen emateak: Kultura Lurralde Ordezkaritzan, Andía, 11-1; telfnoa.: 42 00 48.

MIRENTXU LIBURUDENDA

Erreformak bukatu arte

Nafarroa Etorbideko 7an aurkituko gaituzue.

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 88 04 55

BEASAIN



Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan

Domingo Unanue Plaza

☎ 88 93 25

ORDIZIA



Joseba Telleria
(Goiztiri AEK)

"Euskara ikastea denon eskubidea" lemapean jaso berri diren 140.000tik gora sinadura, 1.300 bat elkarte eta erakunderen atxekimenduak eta martxoaren 5ean Bilbon burutu zen manifestazio jendetsuak argi erakusten du euskararen normalkuntzarako hainbeste garrantzia daukan gai baten inguruan gizarte mobilizatu egiten dela, eta hori guztiz positibotzat baloratu du AEK-k.

Goierriren ere, AEKrekiko babesa eta inplikazioa ez da nolanahikoa izan. Hiru astetan jasotako 4.500 sinadura, 65 elkarte eta erakunderen atxekimendu eta manifestaziora joandako jendetza kontutan hartzekoak dira. Goiztiri AEKren ize-nean, kanpaina honetan, non edo han, parte hartu duen guztioi gure eskerrik beroena doakizue.

Kanpaina hau, Euskalategi libreei ordurarteko subentzio kaxkarrak ere kendu zizkietenean jarri zen martxan. Harrez gero ordea, izan da nobedaderik. Urta-

Goiztiri AEK Euskalategiak goierritarrei

rrilaren 31n Kultura Saila AEKrengana zuzendu zen, eta bi bileraren ondoren aurten AEKk jasoko zuen diru kopurua zehaztu eta elkarrizketa prozesu bati hasiera ematea erabaki zen. Aurre-akordioa adostua dago eta egun gutxi barru sinatuko da, ondoren elkarrizketak hasiko direlarik. Aurre-akordio hori sinatzeaz bat AEKri 125 milioi emango litzaizkioke.

Elkarrizketen helburua Helduen Euskalduntze Alfabetatzea elkar lanaren bidetik indartzeko asmoz AEKko Euskalategiak normaltzea izango da, AEKk behin betiko konponbiderako bidea bultzatuko duelarik. Kontutan izan behar

da, negoziaketan hasiera besterik ez dela. 125 milioi dirutza handia da, baina jakinda AEKk 1.000 bat irakasle eta 100 bat euskalategi dituela, Iparraldeko AEKk inongo laguntzarik ez duela, eta Nafarroan, berriz, oso laguntza urria, ez da hain besterako. Ongi etorriak, beraz, elkarrizketak, baina negoziaketan hasiera izanik, gizarteak AEKren lana babestu behar du eta konponbidea bultzatu elkarrizketa hauetan, euskara baita jokoan dagoena eta bera izango baita garaile.

Bitartean, AEKk aurrez prestatua zuen kanpainarekin jarraituko du, herriz herri euskararen alde egiten duen lana aldarrikatuz, AEKren lana sostengatzeko AEKide kanpaina burutuko da, bertan AEKide txartela hartuz herritarrei laguntza ekonomikoa eskatuko zaie-larik; maiatzaren 20, 21 eta 22an Diman AEKnapada izango da. Bakoitzak ahal duen neurrian parte har dezan eskatuz, doakizue gure agurrik beroena!

Arkupe

Tapizteria

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza

88 00 84

ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

ARBETA ATETXEA

✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

88 10 19 ATAUN S. Martin



LANCIA ETXE - AZPI

88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



Tfnoa: 885500

ORDIZIA

Besteek esana

Zaborren bilketa selektiboa

"Esan liteke Goierri eskualde pribilegiatua dela hondakinen bilketa eta erreziklaiaren kontzientziazioari dagokionez. Prebentzio-sentsibilizazio eta kontzientziazio politika bat aplikatu delako izan liteke agian, isunak jartzearen ordez. Sasieta Mankomunitatearen helburu nagusia epe laburrean bilketa selektiboaren eta erreziklaiaren sistimaren sendotzea da. Laister, herri-tarrek 4 motatako edukiontziak ikusiko dituzte: gaur egun badauden zabor eta beira kontenedoreak, paperenak eta plastikozko ontzienak, metalezko ontzienak eta tetrabrikienak. Esandako ontzietara zuzendutako edukiontzion ezarrera esperientzi-pilotoa da eskualde eta Komunitate Autonomo mailan; Estatuan Bartzelonan eta Iruñean bako-rik egiten da".

Iñaki Erauskinek, "DV"n, 94-IV-19an.



Inkesta



Lehen-jaunartzea bizirik al dago?



Esther Alegria
beasaindarra,
31 urte, euskara irakaslea

Bai, bizirik dirau. Nik sinisten dut baina ez dut praktikatzeko eta, besteei entzunda dakit, umeek egiten dutela uste dut. Beraiek eskatzen diete gurasoei, baina ez Jaunartzeagatik, beste lagunek egiten dutelako baizik. Baten batek egin nahi ez balu, oso ondo deritzot, ez nuke behartuko.



Jaxinta Aranburu,
alkizatar Lazkaoratua,
67 urte, jubilatua eta katekista

Bai, era askotara dago bizirik. Hala ere, itxurakeria geroz eta gehiago dagoela uste dut. Ezkontzak bezala jartzen ari da. Izugarritzko lujoa, gastu asko eta haurrak ez dira zentratzen, ez dakite zertara doazen. Heziketaren beharra daukagula iruditzen zait.



Maite Goikotxea,
ataundarra,
21 urte, zerbitzaria

Bai, ohitura haundia dago, baina batez ere egun horretan, askok behintzat, opariak, e.a. jasotzen dituztelako, ez sinismenagatik. Norbaitek egin nahi ez badi, librea dela iruditzen zait, gure garaian ezetz esanez gero neri amak zaplaztekoa emango zidakeen arren. Nik behintzat ez nituzke nere seme-alabak behartuko.

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 - 88 99 00
Fax: 943 - 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA: XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- ARGITALPENAK: Aldizkari, katalogo, bi-deoak...
- IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK, eta abar.
- MUSEOKO EKINTZAK:
- Ikonografia lantegia: musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
- Goierriko neska-mutilentzako ariketak:
- * Astelehenetan: 12-14 urte.
- * Asteazkenetan: 9-11 urte.
- * Ostiraletan: 6-8 urte.

Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoen bidez!
BISITA ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.
SARRERA DOHAINIK


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Ba al dakizu...?

□Euskal Y grekoa 2007 urte inguruan pasa liteke Goierritik. Tolosaldera hurbildu ahala tunelak maiztuko lirateke, Tolosan, Ikaztegietan eta Legorretan lurgaineko tramu aipagarriak izango baditu ere. Aldabapetik pasa ondoren, 4 km. honago Ikaztegietan aterako dena izango da tunelik luzeena; ez ordea, Itsasondokoa baino askoz luzeagoa. Lehen proiektuaren arabera, trenbide berria Itsasondoko sailetan "airean" sartuko da lurpera, ibaiaren ibar ezkerretik. Mariarats hegian baino ez litzateke argitaratuko tren. Hor, berriro, ibarra zubibidean gurutzatu ondoren, Gantzarain azpitik beste tunel bat hasiko da, Beasaingo Gudugarretaraino. Hortik aurrera berdintsu: tunel gehiago Estandaren goi-ibarrean, Alegi aldean, argitaratu eta Sta. Lutziko geralekura heltzeko; Zumarraga aldea tunelpean pasako luke, Bergara eta Mondragoe bidean.

□Ordiziako kronikan dakarkigu Aralar Parke Natural gisa izendatzea-



Arg. Gema Arrugaña

ren berri. Lur-sailak Amezketa, Abaltzizketa, Orendain, Ikaztegieta, Zaldibia, Lazkao, Ataun, Ordizia, Beasain eta Bedaïori dagozkie. Lizarrustiko

kamiñeroen antigualeko etxea zuriberritu eta hura izango da parkearen atari-etxea. Erakusketagela bat, 40 lagunentzako aterpetxea, taberna bat eta mantenimenduko zerbitzuen lokala baitaratuko lituzke eraikinak. Aurrekontua laister aterako omen da lehiaketara: 80 milioietakoa izango da. Dena den, aurrekoan aurreratu genizuen polemika ere hor dago.

□Ruandan gatazkak direla eta berri onik ez datorkigu Afrikatik. Ale honetako elkarrizketa zentrolean dakarkigu olaberritar misiolari baten etorrera. Leonardo Esnaola lazkaotar apaiza ere han zen; komunikabideek adierazi dutenez, laister batean izango dugu gure artean azken hau.

□Goierriin lur kutsaturik balego zer? Gure bailadan balizko kutsaturiko lurrik egon zitekeela argitara eman zen komunikabidetatik iaz. Hori zela eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak EHUko Kimika Fakultateari problematika honen



OLANGUREN INSTITUTUA

"Ikastetxe euskaldun integratzaile eta publikoa"
IKASKETA ÉRTAINETAN ESPEZIALISTA
Erabat euskaldun eta dohainekoa

Izenemateko epea maiatzaren 4tik 18ra

☎ 880862-66

ORDIZIA



Gero dator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



Inprimategia

EGUZZI

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnak: 88 94 82
20200 BEASAIN

inguruko ikerketa bat egin zezala eskatu zion. Angelica Moreno aritu da, besteak beste, horretan eta berak adierazi digunez ez dago inolako larritasunerako arrazoirik. Ikerketa horren datuak laister kaleratuko direla espero da.

Ihardunaldi Internazionalista garrantzitsuak antolatu ditu Askapenak Tolosaldea eta Goierri begira "Euskal elkartasuna munduan zehar" izenpean. Aurkezpenean Irlandako Sinn Fein, Palestinako eta Sos Racismoko kideek hartu zuten parte eta Korsikakorik ere izan da. Ordizian "Nazioarteko orden zaharra eta berria"ri buruz hitz egin zuen Heinz Dietrich alemaniar soziologo ospetsuak. Ihardunaldiok maiatzaren 13 bitartean izango ditugu.

BEASAIN. Udaleko azkeneko Gobernu Batzordean onartu berri dira ohizko urteroko komenio eta laguntzak bertako elkartei zuzenduak. Horrela sinatu izan dira Loinaz Abesbatza, Beti Bizi, Aizgorri, Aurtzaka eta Ostadarrekikoak. Esaterako, Beti Bizik 1.470.000 pzta. jasoko ditu "Beasain Jaietan" argitaratu eta San Silbestreko krossa antolatzeagatik, e.a.; Loinaz Abesbatzak 1.125.000 pzta. zenbait abesbatz kanpotar herriratzeagatik, e.a.

Apirilaren erdialdea ireki ziren bertako epaitegi berrituaren ateak. Berritze-lanak arte eta ofizioetako ikasleen esku egon dira. Jose Asla, egungo pake-epailea izan da egoitza duinago baten alde gehien lanik egin duena. Beasainen istilurik sortzen duen familia gutxi dagoela aitortu du, baina hauek gerra asko ematen dutela.

XVI mendearen bukaeran eraiki zen "Seroretxea"ren xuriberritze lanak bukatzeaz daude. Obra-lanetarako 50 milioi pezetako aurrekontuaz baliatu dira bere arduradunak. Kontutan hartzekoa da, bestalde, erantzun ona jaso dela beasaindarrengandik. Eraikina elizaren alboan dago eta bertan ekintza egitarau zabal bati ekingo zaio.

Aurtzaka Dantza Taldeak antolatutako Gipuzkoako III Soinu- zahar Dantza Txapelketa Goierri kanpora joan berri da. Txapelketa La Salle-San Joseko zineman jokatu zen eta Beasaingo Ostadar taldeak 9 kide aurkeztu zituen. 1.a Irungo Izaskun Emazabel izan zen eta 3., berriz, Aizpea Garate beasaindarra.

LAZKAO. San Benito Ikastolaren 30. urteurrena animazio eta jendetzaren artean ospatu zen. 300 bat

lagun bildu ziren polikiroldegiko bazkarira alaitasun eta anaitasunean.

ZALDIBIA. Ordiziako berriemaile baten esanetan, "Estrategia Empresarial" izeneko periodikuak zekarren arabera, Bilore jaboi-enpresak Libiarekiko 500 milioi pzta.ko kontratu bat lor dezake. Aurtengoan 9.000 milioi fakturatu omen dezake, beraz, eta numero gorriekiko bi urteren ondoren, irabaziak eta guzti eduki 94.ean. Horrez gain, goierritar firma honek zenbait akordio burutu ditu zenbait banaketa-kate europearrekin.

SEGURA. Antigoaleko hiri-bildu honek bere sinbolorik gogoangarrietako bat birreskuratuko du laister, Zeraingo Portala deritzona, bi kainoizulo dituen. Kainoizulo historiko hauetatik kiriki egiten zuten kainoiek errespetua sartzen bide zieten kanpoko arerioei aintzina. Herria murrailaz inguratutako zegoen garai batean, eta bere ateak dorreoiez zeuden defendaturik. Segurak 5 portale izan ohi ditu: ezagunena, Zerain Portala, Oxina, Atzekoa, Behekoa eta Goikoa. Aurrenekoa dugu notizi, 14 milioi pezetako aurrekontuko obrak egin behar baitira bere arku eta zirrizkuak berritzeko.



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean

Tfona eta Faxe: 88 04 78

Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN



HIZKUNTZA EREDUAK
D EREDUA, dena euskaraz
B EREDUA, dena euskaraz, matematika ezik
A EREDUA, dena gaztelaniaz

* 94-95 ikasturterako, Txiindoki Institutuak LOGSE batxilergoen ezarpen aurreratua egiteko asmoa du. Emango liratekeen batxilergoak: Natur eta Osasun Zientziak, Humanitateak eta Gizarte Zientziak

Ugartemendi Auzoa, 6 • 88 07 53 • 88 73 93 • Fax 16 10 48 • 20200 BEASAIN



RUANDATIK ETXERATU BERRIA DEN MISIOLARI OLABERRITARRA

Rosa Mari Zubiarrain: "Gogorra zen han jardutea, gauzak zeuden bezala"



1979ko udazkenean misioen deiari erantzunez Ruandara joatea okurritu zitzaion lehen aldiz. 4 urte t'erdi egin zituen bi joanalditan, 3. aldiz ere joan berria zen Ertzillekoa "Medicus Mundi"rekin eta baita aguro etorri beharra ere gerra dela eta!

Misiolaritza zergatik aukeratu zuen galdetu diogunean gure izebari, "Ni joan nitunan, nire bizitzan misiolari izatea erabakita neukalako. Niretzat, misiolari izatea beharrik gehien daukatenen alde zerbait egitea da. Beharrik gehien zutenak haitzek hitunan. Ezagutu ondoren gehiago ikusi ninan beharra". Hemendik doazen misiolarien zeregina zein den galdetu diogu. "Lan mota asko egiten dira. Neroni, erizain eta komadrona bezala aritu izan naiz. Beste batzuk mediku, fruitu arbolak noiz aldatu erakusten, jostun, sukaldari,... denetik izaten da. Haiek beharra arlo guztietan dute eta medikuntzaz aparte, mekanikotzan eta batez ere elektrizista-lanak erakustearen behar handia ikusten dut".

Egun, nekazaritza besterik ez daukate, lurra oso gosea dago eta, animaliak libre dabilenez, ezin dute simaurra pilatu eta lurrak ongarritu. Halere ez dute tontoak izan behar: atxurrez zulo handiak eginez ematen diote buelta lurrari, deskantsuan egon den lurra ate-

raz. Lur-zati txiki horietan landara pila ezberdinak aldatzen dira: bananak eta hauen pean mandiokak, sorgoa (zereala, esneduna), babarrunak, kakahuxak, artoa...


Ruandaz ezin jardun gaisotasunik aipatu gabe: "Hori dun hortik honako galdera! Gaisotasun mota asko gose eta elikadura txarraren, gorputzari beti bitamina berdinak ematearen ondorio dira. Proteina asko, haragi gutxi. Arraultzak esaterako, oso gutxitan jaten dituzte. Bakarren bat edukiz gero korrika joaten dira saltzera, diruarekin beste zerbait erosi ahal izateko". Beste gaitz mordo bat garbitasun ezak sortzen ditu. Hango etxeen barnean ezer gutxi aurki liteke, aulkiren bat bade, asko; mahaia eta aulkia izugarritzko luxua. "Etxea, aterpea eta gutxi gehiago da. Belar-zumitz antzekoekin egindako ohea besterik ez daukate. Eguraldi onarekin lurrean eserita egoten dira eta zorua bustirik dagoela, pikotxean. Orduetan pikotxean egotea oso gogoko dute ruandarrek".



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

ÑAÑARRI JATETXEA
bere sagardoarekin

Urte guztian txotxean
Logelak

Larraitx auzoa
☎ 65 40 05 ABALTZIZKETA

Hemen direla Sanprointziok!



Orain urte batzuk bezala, aurtan ere herriko kaleak jende oldeek hartuko dituzte, gure etxeetan makina bat jenderentzat otordu eta lo-lekuak prestatuko ditugu, gure artean nahi genituzkeenez inoiz baino gehiago oroituko gara, tabernariak urte osoko poxa emango dieten kaxakadak ja-

soko dituzte, urte osoko astē egun buruzurietako egunerokotasun dantza, soinu eta farre algarek ahaztaraziko dizkigute.

Orain urte batzuk, ordea, gaur ez bezala, lazkaotarrak "beintizinko" baino dotoreago jantzita ibiliko ziren kalean, etxe guztietan Lazkaotik kanpora joandako herritarrak bilduko ziren, nor bere etxean, meza nagusiarekin batera festako ospakizunik inportanteena zen otordua egitera, bazkaria gehienetan, jaiak batipat egunez burutuko ziren, as-

korentzat urteko jai bakarrak izango ziren...

Eta urte batzuk barru, nolakoak izango ote dira Lazkaoko jaiak?

 J. M. Ormazabal



IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnº: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

ARRIARAN MERTZERIA Haurren jantziak

Irigoien, 12
☎ 160682

Lazkao



Etxe - Zuri Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
Tel. 88 20 49

OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.



S. A.

liburudenda


- ⇒ Liburuak
- ⇒ Jostailu didaktikoak
- ⇒ Eskola materiala
- ⇒ Bulego materiala

Elosegi, 16
Tfnoa.: 88 65 00
LAZKAO

Ana Belén ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
☎ 88 26 31

LAZKAO



Hirigoien, 12
LAZKAO

☎ 16 10 16

San Prudentzio

Apirilak 28 osteguna (Prudentzio Deunaren Eguna)

9,00etan: Antzar Gazteak Txistulariekin Goiz-eresia herrian zehar. **10,30etan:** Prozesioa: ohitura berreskuratuz, Udal Korporazioak, Antzar Gazteak txarangak lagundurik, herriko zaindariaren irudiari lagunduko dio Parrokitik Ermittara; bertan Oin Arin dantza taldeak agurra. **11,00etan:** Prudentzio Deunaren Ermittan Meza Nagusia, bertan Udal Korporazioa egongo da. **Eguerdian:** Xapre eta Zaharra trikitilarien doinuaz poteoa. **12,30etan:** Eskuzko pilota partiduak pilotalekuan, Pelota Elkartek antolatuta. 1. partidua: Lazkao K.E.-ko Pilota Eskolako alebinak; 2. partidua: Amezketako Artola/Galarza, Segurako Artola/Imazzen aurka. **18,00etan:** Oin Arin dantza- taldearen ihardna Enparantzan. **19,00etan:** V Sardina-jate herrikoia, Domarda Elkartek antolatu eta Xapre eta Zaharrak alaituta enparantzan. **20,00etan:** Dantzaldia Akelarre musika taldearekin, enparantzan goizalderarte.

Apirilak 29 ostirala (Kudrila Eguna)

9,00etan: Goiz eresia Antzar Gazteak-ekoekin. **12,00etan:** Kudrilen irteera Txalaparta txarangarekin.



12,30etan: Herri kirolak Olaberri eta Lazkao gazteen artean: aizkora, trontza, txinga, korrika eta koskol bilketa. **15,00etan:** Kudrila bazkaria Polikiroldegian, Lazkao Gazte Asanbladak antolatuta. **16,00etan:** Haurrentzako parkea plazan: gaztelu puzgarria, zezen mekanikoa eta Santafe tren. **18,00etan:** Kudrila desfilea herrian zehar Txalapartakoekin. **19,00etan:** Karaoke festa eta zezen mekanikoa kuadrilentzat. **23,00etan:** Dantzaldia Drindots taldearekin goizalderarte.

Apirilak 30 larunbata

9,00etan: Goiz eresia Antzar Gazteak txistulariekin. **10,00etan:** Igeri lehiaketa igerilekuan. **12,30etan:** Beasaingo Akordeoi Orkestrak eskeinitako Akordeoi kontzertua plazan. **16,30etan:** Eskuzko pilota partiduak: 1. partidua: Lazkao K.E. Pilotako benjaminak; 2. partidua: Urretabizkaia (Ikaztegieta)/Garmendia (Lazkao), Lazkao Ruiz/Gelbenzuren aurka. **18,30etan:** Haurren danborradaren irteera, bukaera enparantzan. **20,00etan:** Dantzaldia Basajaun taldearekin; **23,00etan:**



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Tfnoa: 882442 - 888901 Faxe: 888901
Senpere Industrialdea - LAZKAO

ASEGURU / AGENTZIA

MUNDUATE

☎ 888620, Fax: 889118
Hirigoién, 12 LAZKAO

GAUR

KARROZATEGIA

Auto konponketa - margoketa

Mendizalbal baserria
☎ 88 86 09

LAZKAO

PATXI ELORDI HARATEGIA

Mikelar, 1
☎ 88 93 57

LAZKAO

GIROA TABERNA

Pintxo ederrak jateko aukera

Areso, 6
☎ 88 77 40

LAZKAO

Jaien egitaraua

Suziriak, Caballer Pirotekniaren eskutik. **24,00etan:** Dantzaldia: Basajaun taldea. Ondoren LGAk antolatuta, txokolatada Txalapartaz alaiturik. Festa giroa alaitzeko mozorro-gaua.

Maiatzak 1 igandea

10,00etan: Goiz eresia Tolosako Dultzaineroekin. IX Lazkao Xake Txapelketa polikiroldegian, bertako Xake elkarteak antolatuta.

12,00etan: Makailu lehiaketa enparantzan, Domardak antolatuta eta Tolosako Dultzaineroek alaituta.

16,00etan: Toka Txapelketa plazan, Danak Taldeak antolaturik.

16,30etan: XIV Dantza-Sueltoko Txapelketa, Sta. Madalena Elkarteak antolatua. **20,00etan:** Dantzaldia Imuntzo eta Beloki trikitilariekin.

Maiatzak 7 larunbata

10,00etan: XVIII Lazkaomendi Proba, L.K.E.ak antolatua; ibilbidea (75 km.): Lazkao-Alegia-Lazkao-Olaberria-Iurre-Alegia-Lazkaomendi, helmuga. Ondoren sari-banaketa. **18,30etan:** Toka lehiaketa lazkaomenditarren artean. Ondoren



txokolatada Ixurrene jatetxe aurrean.

Maiatzak 8 igandea (S. Joan Ante Portalatinaren Eguna)

11,00etan: Meza Nagusia Juan Ante Portalatinam Deunaren Ermittan, Udal Korporazioa bertan dela, txistulariekin. **12,00etan:** Haurrentzat jokuak. **13,00etan:** Ma+ukorta eta X. Zeberio bertsolarien ekitaldia.

17,00etan: Herri Kirolak, Lazkaomendiko gazteak Olaberrikoen aurka: txinga, trontza, koskol eta lasterketa. Jarraian Faustoren erakustaldia (hortzekin txinga jasotzea). **18,00etan:** Astokarrera. **18,30etan:** Bertsolarien 2. ekitaldia. Ondoren Iparragirre anai-arreben eta Munduate trikitilarien saioa gaulderarte.

II Argazki-Lehiaketa

Lazkaotar izateaz gain, profesional ez den edonork har dezake parte. Gaia: San Prudentzio 94. Txuribeltz edo koloreetan. Aurkezteko epea 94-V-31. Sariak: 1.a: 25.000 pzta.; 2.a: 15.000 pzta.; 3.a: 10.000 pzta. Argibide gehiago Lazkaoko Udaleko Kultura saila.

Oharrak:

Goierriko Arte Ederretako 11 ikasleen arte erakusketa izango da udaletxeko areto nagusian, apirilak 23, 24, 27, 28, 30 eta maiatzak 1ean, 12,30etatik 14,30etara eta 17,30etatik 19,30etara.

Eguraldi txarra eginez gero, kaleko ekintza guztiak Polikiroldegian egingo lirateke.

OSAKI

Senda belarrak
Naturopata

Mikelar, 1
☎ 88 93 62

LAZKAO

ITXURRENE TABERNA

Bazkariak, jaunartzeak, bataioak...

☎ 88 57 59

LAZKAOMENDI

Kawasaki YAMAHA SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Hiribarren-atze Poligonoa, 1

☎ 883903

LAZKAO

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHRA

AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE
TFNO. 88 81 01 LAZKAO

San Prontziok

Euskal Erriko esae-rei begiratu bat botatzen badiegu, bereala topo egingo degu ondorengo onekin: "apirilla ona ikusi nai duenak, eun urtez bizi bearko du". Gero ez dakit zer gertatuko zai-gun, bañan au idazten ari naizenean, apirilla-ren erdialdean, ebia eta otza nagusi ditugularik, emen ez dago giro.

Jaun batek, gure herritarra (itsasondorria) ain zuzen, au esan oi zuen: "San Prontziok pasa arte, eguraldiarekin ez fiatu, beti txarra egiten dik eta". Ea ba, lazkaotarrak aurten ona izaten duten eta erriko festak alaitasunez ospatzen dituzten. Orixe opa diet.

Lazkao aipatu dedan ezkerro, bera-ekin loturik dauden kasu bat edo beste jarriko ditut. Orain 60 urte paseak, erriz erri eta etxerik etxe, ibiltzen zan gizon bat ezagutu nuen. Bere eskuetan, zurezko ooltxo baten margotua, San Prudentzioren irudia ekartzen zuen eta limosna bildu Lazkaoko San Prudentzioko ermittan, gaur parroki, kandelazko argiak pizteko edota baseliza ura txukun edukitzeko. Izaten ziran an-emenka Santuari limosna eskeintzen



ziotenak alako edo orrelako gaitza sendatzeagatik, eta eskertzeko limosnero ari ematen zioten.

Gutziz oker ez banago, aurten beteko dira 32 urte Lazkaoko Txirrindulari Probara dei egin zidatela, "altabozero" lana egitera. Karrera au bi sektoretan banatzen zan. Leendabizi, txirrindulari denak, erlojuaren aurka eta ondoren denak arraia berdiñetik irtenez. Ordu-lariaren aurkakoan, ibilbidea ondo markatua ez zegoelako edo karreristak ulertu ez zutelako, batzuk luzeago eta bestek motzago egin zuten. Azkenean, epailariak balio gabe uztea erabaki zuten. Gero asi zan bigarrena eta, denok gauzak konpondu ziran ustean

geundela, an dator "La Estellesa" autobusa, eta nun jotzen duen elmu-gako pankarta!, balkoi batetik bere pareko zuaitz batera jarria zegoena. Balkoi erdia txintxilik gelditu bazan ere, denok kontentu giñan iñork miñik artu ez zuelako. Gure adiskide Anjel Xaxi eta bere konpañiak tripa-jate ederrak izan zituzten egun artan.

Araban, San Prudentzio bere Zaindari dutelako, batez ere Gasteizen, egun aundi ori ospatzeko, karakolak jateko oitura omen dute eta, gañera, gozotan jan ere. Lazkaon ere karakolak gogoz-koenak? Ez det uste.

Ondorengo kasu au, gure tabernan gertatu zala, urteak dira. Jan kontuekin ari zirala, kuadrillako batek ala dio:

--Nik, ollaskoa baño naiago dizkiat karakolak.

--Ik bai? Ba, nik ez. Ik ekarri ollaskoa eta nik aren truk karakolak ekarriko dizkiat.

Traturik egin gabe gelditu ziran.

 Ibai-Ertz

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 5 ☎ 882029 LAZKAO

EGUZKI-LORE

Lora denda

Ezkontza erregaliak
Andregai erramuak
Kotxe apainketa
Eliza apainketa
Hirigoi, 24 ☎ 884965 LAZKAO

LAZKAO TABERNA

- Txokolatea eta opilak
- Meriendak
Gurutze, 6
LAZKAO



☎ 884822



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

XX. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK
Izen-ematea, maiatzaren 3tik aurrera

Uztaila, 4-22
Abuztua, 1-26
Iraila, 5-30

Alfabetatze eta euskalduntze maila guztiak
Eskatu informazio gehiago
HABEren diru-laguntzaz



"Etxea, aterpea eta ezer gutxiago da han"

Pobrezia horregatik ez, baino bertan sekulako sarraskiak gertatzen ari direlako entzun dugu azkenaldian Ruandaren berri. Burruka *hutu* eta *tutsien* artekoa da; zergatia, agintearen egarria. 66.an Belgikak Ruandari independentzia eman zion. Aintzinatik ordurarte *tutsiak* (Masai-en ondorengoak) agindu izan dute eta agintzen jarraitu nahi dute. Nahiz eta askoz gutxiago izan, beti aberatsagoak izan dira, behizainak, haragia eskura dutela, gudariak eta azkarak dira. Independentziarekin hutuen gehiengoari eman zitzaion agintea; ezin eramanda, *tutsiak* kanpora atera eta armatu egin dira tarte horretan.

"*Tutsiak haundiagoak dira eta ustea ere halakoa dute: harroak dira eta handinahia izugarria daukate. Gutxiengo izan arren, agindu egin nahi*" dutela dio Olaberrikoak, eta hori dela

sakoneko arrazoia. Ugandatik prestatuta etorri direnez, lortu egingo dutela gainera. Dagoeneko hiriburua hartu dute eta aurrera doaz. Espetxeak irekiz joan dira eta barrengoak taldekide bihurtu dituzte.

Gauzak ez daude jolasetarako. Hala ere egoera piska bat baretu orduko berriro bueltatzeko prest daude Rosa Mari eta gainontzeko misiolariak. "Azkenaldian gauzak jarri ziren bezala, oso gogorra dun han jardutea. Gasolina lortzeko zailtasunak genizkinan eta demagun gaiso-etxera zesarea behar duen emakume bat ekartzen dutela: nik ez daukat han zesarea burutzeko mo-

Gauzak ez daude jolasetarako Ruandan

durik, eta autorik ez badaukat zer egin behar dut: emakumea eta haurra hantxe hiltzen utzi?". Kontu gogorak. Berraz, ea gauzak konpondu eta berriro bueltatzeko moduak egiten diren.

Argider Mujika

Gorriak beltzen artean ere

Ruanda Afrika erdian dago, Tanzania, Zaire, Burundi eta Uganda herrialdeen artean. E.H.ren tamainu-modukoa da, txikia; 26.340 km² ditu. 6 hilabetez gutxi gorabehera lehortea izaten da, beste 6 hilabetez euri-garaia; "euri-sasoian, asko botatzen du, zaparrada galantak bota eta berehala eguzkia. Kanpoa zoragarria jartzen da", dio olaberriarrak. Urte guztian 14 gradutik 27 bitartean ibiltzen da. 8 milioi biztanletatik %95a nekazaritzatik bizi da; oihanak zati txikia izan arren, bertan animalia mota ugari dago: elefante, zebra, lehoiak,... Jende asko eta lur-sail gutxi eta horiek banatu behar izateak dakar bertako jendea behartsu izatea. Industriarik ez eta aberastasun handirik ere ez da. Gasiturriak badaude, baina ez esplotakuntzarik.

2 tribu nagusi ez baina 3 arrazak koesistitzen dute Ruandan. Hutuak, *tutsiak* eta Butuak. Azkenekoak dira gutxiengoa (%1,4a); *tutsiak* %10-15a eta hutuak %85-90. Aurreneko eguntan, beltzak izaki, guk ez genituzke antzemango, baina berak ederki asko bereizten ditu hiru arrazetakoak. Halere, arraza ezberdinek ezaugarri ezberdinak dituztela dio: *tutsiak* besteak baino altuagoak eta ederragoak dira, butuak berriz txikienak dira... Arrazak dezberdinak badira ere, hizkuntza berdina darabilte: *kinyaruanda*, beren eguneroko bizitzan. Belgia kolonia ohia denez, frantsesera da "ofizialago", umeei beren mintzaeran erakusten zaie, baina hortik aurrera frantsesez. Ikasteko aukera gutxi batz badaude, baina txiroei asko kostatzen zaie. Garai batean jendeak nahi zuena ezin zezakeen ikasi, estatuak plan-gintza bat zuen: hainbeste elektrizista, horrenbeste albaiteko, e.a. atera behar ziren... Orain ia ez da halakorik.



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.

-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...

-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik Goierrirako bidean


Tfona: 88 26 73

IV Gerriko Ikerlan Sariketa liburuen aurkezpena

"Goiherriko Euskal Eskola" K.E.a, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea, antolatzaileak garenok, ikerleek, Joxemartin Apalategi, Sariketako Zientziazko zuzendari denak, Karlos Otegi eta Paulo Iztueta epaimahaikideek, Gobernutik, Hizkuntz Politikatik hain zuzen Mari Karmen Garmendiak eta Inazio Estensoro Lazkaoko Alkateak, mahaiaren inguruan bildu eta Ikerlan-Sariketari buruz beza-la, bi liburuez eritziak bota eta aurkezpen interesgarria osatu genuen.

Orain arteko emaitzak

"Goiherriko Euskal Eskola"ko Lehendakari den Andoni Sarriegi 89an sortutako sariketa honen gaur arteko emaitzak azaldu zituen: 13 lan jasoak; horietatik 9 argitaratuak, 6 liburutan. Gaiei buruz, artzantzari buruzko bi lan, bat basogintzaz, bat meatzaritzaz, etnografiatzeko beste bat, bi biografia eta beste bi soziologia arloan demografikoak izan



dira. V Sariketara 3 lan aurkeztu dira, baina epaimahaiak aztertu eta bere erabakia eman arte ezin ezer aurreratu.

Bi tesi

Joxemartin Apalategik bi lanen bi tesi edo goi-pentsamendu irakurri zituen. "Migrazio-mugimenduak Olaberrian" lanean Arkaitz Arruabarrenak 1936tik gaur arte 3 garai bereizten ditu: 1) Arra-

zoietan mugitzen denean; 2) Gaurko garaia dagokionean; 3) Etorkizunean: zer gertatuko da Olaberrian, jendez hustutzen denean? Eta ondoren zera dio Arkaitzek: "Dena dela, kontua ez litzateke soilik Olaberriako biztanle kantitatea, zenbat jende, baizik eta beraien bizimoduaren kalitatea...". Otaegiri buruzko lanean, berriaz, honela diote egileek: "Bere bizitzan, 30 urte luzeetan, erdararen irakaskuntzan jo ta ke ihardun ondoren, barru-barrutik intziri sakon hau atera zitzaien: 'euskara beti bizi dedin, erdaraz ez itzik egin'. Gehiago ere badiren arren, bi tesi handi dudarik gabe. Aipamen interesgarri gehiago izan ziren, baina hemen eta orain denak jartzea luzeegi gerta daitekeenez, honetan uzten dugu. Liburuak irakurri ondoren eritzi, komentario eta kritikak kaleratuko al dira!

"Goiherriko Euskal Eskola"
Kultur Elkartea



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**

albisu
KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón, 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara

16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik,
14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

ZUMAKETA, S.A.

Laister etxebizitza, behe eta garajeak salgai
Lazkaoko Elozegi kalean

Koldo Eleizalde, 1 behea — Telefonoak: 76 33 42/43 — Faxes: 76 11 07 — **BERGARA**

Marron, munduan zehar

Kontinente bakoitzeko mendirik altuenera igotzeko asmoz, apirilaren 15ean abiatu zen Ataundik Ramon Agirre "Marron". Bakarrik ekin dio gainera, urte osoan zeharreko ibilaldia-ri. Berarekin joatekoa zen Oñate nafarra etxean geratzeak, ez du Marronen helburua zapuztu, eta hutsune horrek traba gehiago sortu badizkio ere, abiatu, abiatu da eta bakarrik gaintitu beharko ditu mendiak ez ezik, gainontzeko oztopoak ere, hala nola, baime-nak, laguntzak,... eta bestelako presta-kizun guztiak lortzeko izan beharreko harremanak.

Marron, iazko maiatzaren 16an Everest mendi gailurrera igo zen Arabako espedizioaren partaide zela eta Oñaterekin batera. Orain, "Zazpi haundiak" deitzen zaion abenturarekin segituz, ondoko ibilbide eta egutegi hau izango du Marronek: Kilimanjaro (5.895 m.), Tanzania (Afrika); apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitartean. McKinley (6.194 m.), Alaska (Artiko); maiatzaren 21etik ekainaren 24ra. Elbruz (5.633 m.), Georgia (Europa); uztailaren 9tik 23ra. Kartenz Piramidea (4.884 m.), Papua Ginea Be-



rria (Ozeania); irailaren 15etik urriaren 10era. Vinson Mendia (4.897 m.), Antartida; azaroaren 1etik abenduaren 10era. Aconcagua (6.960 m.), Argentina (Hego Amerika); abenduaren 10etik 31ra.

Data hauek, Marron Ataundik kanpo izango direnak dira. Bakarrik abiatu den Marronek, parapenta izango du ibilbide guztian zehar lagun ixila, ETBk utzi dizkion kamerekin batera. Eta mendi bakoitzean egingo dituen lagun berriez gain, azkenekoan, Aconcaguan, herritar batzuk izango ditu berarekin. Zorte on Marron. Gai-nontzekoa jarriko duk hik eta.

Santiagoren irudia

Hospitaleneko Santiagoren irudia berriztatu eta bere txokoan kokatuta dago berriz ere. Egile ezezagunaren egurrezko irudi honek, eguraldiaren eta denboraren iraganaren kalteak ez ezik, garaiean garaiko zenbait jenderen era-soak ere nozitu behar izan ditu. Orain, herritarron ondare historikoa den iru-diari errestituzio lan goraipagarri bat egin zaio Portela & Chillida etxearen bitartez. Aipatutako apropos eragin-dako kalteetaz babestearren ordea, kristalezko ate batez estalia izango da aurrerantzean, Santiagoren irudia.

Autobus zerbitzua

Iruñeko "La Estellesa" autobus entre-presak, eguneroko zerbitzu berri bat es-keiniko dio hemendik aurrera Atauni, Donostiarako joan-etorrian. Ataundik goizeko 7.45etan eta arratsaldeko 2.15etan aterako da Kaxetatik. Donos-tiatik, arratsaldeko 1.00etan eta 8.15etan aterako dira Atauna bidean. Herri guz-tietan geldituz, ordubete batez joan-etorriak patxadaz egiteko aukera beraz.

Joxe Begiristain

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

**MASAJISTA
DIPLOMATUA**

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52
ORDIZIA

KUKO
Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885854
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Ezkioko jaien egitaraua

Maiatzeko San Migelak ganean ditugula eta, hemen dihoakizue GOIERRITARRAren irakurleei antolatu diren jaien egitaraua eta bertara hurbiltzeko gonbitea: **maiatzak 6an**, ostirala, iluntzeko 8,30etan herri-afaria. **7an**, larunbata, arratsaldeko 4retan mustxapelketa; 5etan ume-jolasak (mountain-bike, txerri harrapaketa,...); 10etan bertso jaialdia: Peñagarikano, Mendizabal, E.Arozena eta Lazkano; ondoren jaigiroa Rekalde anaiak trikitilariekin. **8an**, igandea, San Migel egunez, goizeko 11etan meza nagusia; 12etan pilota partiduak eta toka txapelketa; arratsaldeko 7etan herri kirolak, aizkolari eta harrijasotzaileak: Arrospide-Korta (9 arrobako kubikoaz) eta Olasagasti-Goenatxo (10 arrobako kubikoaz), kana-erdiko enbor bat ebaki eta 5 aldiz harria altxatu beharko dute, 10 aldiz; ondoren Zaldua anaiak trikitilariekin emango zaie amaiera aurtengo jaiei. Ondo pasa!

Toka Txapelketa

Maiatzak 8an jokatu da, 12etatik 13,30etara. 11,20 metrotako distantziatik egingo dira jaurtiketak. Proba



Pagoagako Inozentzio Ugarteburu, baserriko atarian, tokari tiraka.

(G. Aranburu)

bat egin eta beste hiru tiraldi izango dira baliagarri. Izen- ematea, berriz, 300 pzta. kostako da. Sariak: 1.a: garaikurra ñ oparia ñ dirubiltzearen %40a; 2.a: garaikurra ñ oparia ñ dirubiltzearen %30a; 3.a: garaikurra ñ oparia ñ dirubiltzearen %20a; Herritarrek

garaikurra eta oparia izango dute; eta herriko 1. neskak eta 14 urtetik beherako 1.ak opari bana.

 Pilare Mujika

ZEGAMA

Intsumisioaren lehen pausoak herrian

Joandako apirilean, Manu Arizkorretaren egoerarekin bat eginez, intsumisioaren aldeko talde bat sortu zen herrian. Lehen pausoak diogu, aipatu bezala taldea sortu berria delako, baina erabat sendoak eta ekinkorrak izango direla koan gaude hasierak erakutsi duenaren arabera. Benetan zabala izan da oihartzuna eta jendeak gogotik ekin dio era bateko edo besteko eginbeharrei.

Lan-taldea, 3tan banaturik aurkitzen da: a) Intsumisioari buruzko informazioa zabaltzearen ardura dugunak; hasierako bileretan erabakia izan zen, herriko jendea egiten zeraren jakinaren ganean edukitzeaz gain, eta gaiaren garrantzia ikusirik, informazio sakonago bat ere eskuraztea. b) Beste zenbait

ekintzen antolaketa bideratuko dutenak (jaialdiak, e.a.). c) Aurreko ataletan sortutako gastuei aurre egiteko dirua lortzen saiatuko direnak (joandako apirilak 30eko mus txapelketa, laguntza-errifak, denda eta tabernetan jarritako itsulapikoak, adib.).

Apirilak 22ko asanbladan onarturik gelditu zen Zerbitzu militarren legea eta Kontzientzi eragozpenaren legearen aurka Udalari aurkeztuko zaion mozioa. Komunikabide desberdinetan agertuko diren ohar puntualak gain, herritar bakoitzak kontzientzi eragozpenari buruzko informazio zabalagoa barneratuko duen aldizkaritxo bat ere jasoko du. Beste zenbait ekintza ere izango dira: maiatzak 20ean: herri-afaria; 21ean:

txalaparta, trikitixa, e.a. kalean direla, poteo enkartelatua; bertso jaialdia: Sorrozabal, Mendizabal, Sarasua eta NARBarte bertan izango direla; 24ean, epaiketa eguna: salaketa "bistaraztera" zuzenduriko zenbait ekintza; 28an: rok kontzertua.

Gaineratu nahi genuke baita, ostiraleroko biltzen garela Udaletxean eta ateak irekita daudela inguratu nahi duen edozeinentzat.

*Zegamako Intsumisioaren
Aldeko Taldea*

Beheko Barrioko festak

Aurten ere, eta urtero bezala, pres-tatuak dituzte Santa Kruz Jaiak Beheko Barriokoek. Asteartean, maiatzak 3an eta 7,30etan meza izango da Kurutzan. Ondoren Jexux Mari Imazek eskainitako eta Gorka Izagirrek antolatutako "luntx"a. 8,30etan Beheko Barriokoen afaria musika eta guzti, Guraso Elkartean. Igandeak 8an eta 8,30etan meza Kurutzan. 9,30etan jubenil mailako XX Gurutze Deunaren Txirrindulari proba "Javier Ormazabal"en oroimenez. Txirrindu lasterketak 96 km. izango ditu eta 12ak aldera bukatuko da. Aipagarria da aurten lehenengo aldiz Mutiloatik Kortzura eta hemendik minatara doan bidetik pasako dela karrera. Karrera



ondoren Udaletxeak eskainitako luntxa izango da eta nahi duten guztientzat ere hortxe izango da tokan aritzeko aukera.

Pelotan indartsu

Herriz-herriko Pelota Txapelketa-ko lehenengo kanporaketatik indartsu atera zen Segura, Tolosari 6 partidua irabazi ondoren. Bigarren kanporaketarako zozketan, 91 eta 92an bera- rekin batera finalista izandako Usurbil suertatu zaio. ez da arerio makala, baina eskuak bete lan izango dute!

Joseba Telleria

OLABERRIA

Iurre auzoko jaiak

Orain dela urte asko Olaberrian hainbat festa bazeuden, denak erlijioarekin lotuak. Jai nagusia ekainaren 24an ospatzen zen, San Juan Bataiatzaile eguna; gaur egun ere hau da gure festarik nagusia. Baina bazeuden beste egun garrantzitsu batzu, hala nola, Juan Bautistaren lepamoztearen eguna, abuztuan 29an ospatzen zena. Maiatzaren 3an Santa Kruzen asmaketa, irailaren 29an San Migel Goiaingeruarena eta azkenik, abenduaren 13an Santa Luzia eguna. Juan Baiatzailea Deunaren lepamoztearen oroigarritzkoa 1700-1716 urte bitartean hasi zela uste da. Ospakizun honek garrantzia haundia eduki zuen, San Juanen eta Santa Kruzen erlikiak Erromatik ekarriak baitziren. Horren ondorioz jende asko biltzen zen gure herrian. Gaur egun ere ospatzen da egun hau.

60. hamarkadan, berriz, Iurre auzo industrialean San Jose Langilea deritzan jaiak ospatzen hasi ziren, gune horretan bizi ziren hainbat langileen alde. Ospakizun hau oraindik bizirik dago eta asteburu honetarako honako egitaraua antolatu dute Jose Maria Aristrain elkartekoeK:

Apirilak 30, larunbata: 10etan: Goiz-eresia trikitixarekin; 11etan: haurrentzako eskulanak; 12etan: poteo herrikoia trikitixak alaitua; 17etan: haurrentzako jolasak eta herri mailako Toka txapelketa; 18etan: mini-golf lehiaketa; 19etan: buruhaundiak, Los Incansables txaranga-ekin; 23etan: mozerro-lehiaketa; 3etan: txokolatada. **Maiatzak 1, igan-dea (San Jose Langilea eguna):** 10etan: Goiz-eresia trikitixarekin; 11etan: Meza

nagusia; 12etan: Herri kirolak; 16,30etan: herri mailako mus txapelketa; 17etan: pailazoak; 18etan: ume jolasak; 20,30etan: Kalderete lehiaketa; 18etatik 24.00etara: Los Incansables.

Herri-Urrats

Urtero bezala, maiatzaren 8an Herri Urrats ospatuko da Iparraldean. Hau dela eta Udaletxeak aurreko urtean bezala autobus bat jarriko du gure zerbitzura. Olaberriarrontzat dohain izango da; al-diz, kanpokoek zertxobait ordaindu beharko duzue. Busa goizeko 8retan aterako da Olaberriko kaskotik; beraz, joan nahi duzenok telefono honetara hots egin beharko duzue: 881434.

Nagore Goiburu

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

**Carasa, Cilveti,
Lacort y Cia., S.A.**

Aseguruen Korreduria
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak 88 69 53
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA

Paulo Suberriola irabazle bertsolari gazteen txapelketan

Apirilaren 16an, larunbata, Osinalde elkartearen ospatu zen bertsolari gazteen txapelketan, bere hitzetan lehenengo aldiz mikrofonoa hartzen zuen Paulo Suberriola lasartearra izan genuen irabazle. Saioa, oro har, nahiko ona izan bazen ere, Suberriolak eta honen herrikidea den Andoni Otamendik egindakoak izan ziren onenak, baina ez nuke aipatu gabe utzi nahi Zelaiak egin zuen saioa. Beste hirurak, hau da, Unai Agirre, Andoni Larrañaga eta Mikel Aranburu apaltxeago aritu baziren ere, tarteka bertso ederak bota zituzten. Kartzelako saioan Otamendiren bertsoak izan ziren onenak nabarmen, batez ere, gaia emanda bota zituen sei puntuko bi bertso haiek, baina kartzelako gaietara iritsi aurretikoetan dexenteko aldea atera zion Suberriolak, nahiz eta hasieran puntukako lehen bertsoan makal samar aritu; Suberriolak egindako saioaren ezaugarriren bat aipatzekotan bertso bukaera borobiltzeko gaitasuna azpimarratuko nuke, benetan arrazoi sakonak emanez.

Larunbateko saioan garbi ikusi zen bertsolari gazte hauek badutela etorria eta zer kontatua. Azkenik, bertsorik onenaren saria Zelaiak jaso zuen, puntuazioaren arabera hau sailkatu baitzen hirugarren, eta honen bertsorik onenetakoa, beharbada, bukaera emanda Lazkao Txiki aipatuz kantatu zuen hura izan daiteke. Jende askoren iritziz, saio hau



Ezkerrean: Paulo Suberriola, txapelduna. Eskubian: Larrañagaren semea, Zelaia eta Unai Agirreraren artean.

izan da aspaldian egin den onenetakoa. Bi lasarte horientzat Gabiriako saio hau izan da jendaurrean kantatu duten lehen aldia eta Lasarteko Bertso-eskolan prestatu ohi dira bertsotarako Nikolas Zeberio maisu dutelarik. Orain arte bertsolaritzaren mundu horretan ezezagunak izan arren, aurrerantzean horrelako saioak egiten jarraitzen badute, izango dugu hauen berririk.

Udala eta Cesar Gabiria

Herritar eta inguruko biztanle gehienak jakingo dute gure herriaren izena eta Colombiako Presidentearen lehenengo deitura bat bera dela. Honetaz gainera, pentsatu ere egiten da Cesar Gaviria Trujilloren arbasoak inguru honetakoak izan zitezkeela. Honela, 91.ean Presidentearen lehengusu bat Europan zehar bidaia egiten ari zela Madrileraino hurbildu zen, eta hemen zegoela Gabiria

izeneko herri bat bazela jakin zuenean, herri hau bisitatzea erabaki zuen berriro Colombiara joan aurretik, eta egun batzuk barru hemen agertu zitzaigun. Ikustaldi hau zela eta, udal-agintariak eskutitz bat eman zioten Presidentearentzat, bertan Gabiriara etortzeko gonbidapena luzatzen zitzaizlarik. Handik gutxira, Cesar Gaviria berak eskutitz bat bidali zion Alkateari bere esker ona azalduz. Orain Gabiriako Udalak haritzeko aginte-zigorra edo makila oparitzea erabaki du, eta horretarako Madrilen dagoen Kolonbiako Enbajadako ardura-dunarekin harremanak izan dituzte, horren bidez bidaltzeko aginte-zigor hau. Honetaz gainera, Euskal Etxera ere bidali dute beste makila bat.

Gabino Murua

TXERTAKADI SAGARDOTEGIA

- Norberak haragia eman ezker ere prestatuko zaio
- Eguerdietan ere emango da aurrez abixatu ezker, 884798 tfnora Bixita gaitzazu!

Urtesabel Auzoa

ZALDIBIA

☎ 16 13 59

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnok: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

HEGOA
TABERNA

Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfnoa eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Hirigunera dihoan trafikoa azertzekotan dira. Orain urtebete ireki zitzaizen kotxeei Kale Berria; horrek zirkulazioan aldaketak ekarri zituen, nabarmenena Urdaneta kalearen jeitsiera zentzu bakarrean izatea Beasainalde-rantz. Herriguneko merkatariek gaizki ikusi zuten neurri hori, beren salmenten aurka dihoalako. Hau dela eta gai hau azter dezala eskatu diote Udalari sektore horretako arduradunek.

Bere sabaia pisuz gainezka egon arren Enparantza (horrela bakarrik deitzen ahal zaie plaza estali edo itxiei eta ez plaza) Nagusiaren egitura onean aurkitzen da. Udaletxean egindako azken osoko bilkuran, sabaiaaren indartze eta sendotzea erabaki zuen gorporetioak. 17 milioitik gorako aurrekontua izango du. Zutabeek ez dute inolako

akatsik, zenbait ormek zartatu batzuk eduki arren. Karga gehiago jarri gabe, sabaia inpermeabilizatzea eta dena pintatzea da azken asmoa.

Azkenean ontzat eman du Aralar Parke Natural izendatzea Eusko Jaurlaritzak. Aldunditik zihoakion proiektua. Gipuzkoako babesekiko lehen gunea izango da honakoa eta 11.000 Ha. izango ditu dena. Orain zuzendari bat izendatuko zaio parkeari eta patronatu bat sortuko da, horren gestioa eraman dezan. Zenbait iturrien arabera goierritar bat izan liteke beronen zuzendari. Egitasmo bat jarri beharko du martxan gero patronatu horrek.

Jakintza Ikastolako kirolari asko eta asko podiumera igo berriak zaizkigu, "Hondarribiako Hiria" izeneko XIX

umeen krossa zela eta. Mutil benjaminetan Mikel Sanchez izan zen irabazle eta nesken sailean Maddi Zabala hirugarren. Iker Iztueta ere ederki aritu zen alebin mailan 3. geratuz. Lehen 10 sailkatuetan artean sartu ziren hauek ere: Eneko Mendia, Zuriñe Eskisabel, Yaisa Etxezarreta, Gorka Satrustegi eta Maite Etxeberria. Zorionak!

Ordiziako jubenil mailako futbol taldeak, hasera batean gaizki ibili bazen ere, entrenatzaile berria etorri zenetik zulotik ateratzea lortu du, azken emaitza onak direla medio. Bestalde, aipatu lurraldeko 1. mailako taldeak preferentera igotzeko aukera handiak dituela, momentu honetan 2. postuan sailkatua bait dago.

Aitor Calvillo

BEASAIN

Elkartasun Denda, Gipuzkoako lehena hemen

Joan den apirilak 20an ireki zuten Askapenako kideek "Elkartasun Denda", Udaletxe aurreko Kale Nagusiaren 12.ean. Egia esan, iazko abenduan ireki zuten lehenengoz Gabonak aprobetxatzeko asmoz, baina azkenean, Udaletxearen permisua atzerapena eta lokalaren berrikuntza zela medio, aurreko astean jarri zen martxan. Eta badirudi hamaika kutixi eta bitxizale bertaratu dela dagoeneko. Izan ere "Hirugarren Mundutik" datozkigun hainbat produktu merke asko aurkitu baitaitezke gisa honetako dendetan. Eta, kausa on baten alde erosi daitekeela jakiteak badu esanahirik, gainera.

Nahiz eta Europan zehar orain dela 25 urtez geroztik egon honelako dendak, Gipuzkoan irekitzen den lehena dugu Beasaingo, Gasteizen iazko abenduan ireki zutenaren atzetik. Aurreko beste 3 irekitzekotan dira Askapenakoak Euskal



Goierri izan duten laguntzari esker zabaldu da bertan

Herrian zehar. Merkataritza alternatibo honen helburua, munduko zenbait herrialdeekin merkatal harreman errespetuzkoak edukitzea da, berdinen artekoa eta bidezkoa, espekulaziorako edo esplotakuntzarako asmorik gabe, beti ere, lan egiten duten komunitate indigenen garapena eta hobekuntza lortzeko.

Latinoamerikako eta Asiako zenbait kooperatiba eta autogestio enprekin lan egin da; haiek sortzen dituzten pro-

duktuak erosi eta salneurri justu batean hemen saltzea da helburua, bitartekorik gabe eta aberasteko asmorik gabe. Erropak, produktu testilak, artesianiazkoak saltzen dituzte gehienbat; baita jakiak ere, ron-a, azukrea, ezti, kafea, txokolatea, tea, e.a. Guztiak ere nekazaritza biologikoaren eran ekoiztutakoak. Esan behar da baita ere, Elkartasun Dendak, salmentaz gain, informazio-gune bezala ere

funtzionatzen duela, Askapenaren zenbait proiektu eta herri indigenen berrien zabalkuntza lortzeko asmoz.

Denda honek beste edozein dendak duen ordutegia dauka, astelehenetik larunbatera 10etatik 13etara, eta 16etatik 20etara. Asteazken goiza salbu, itxita egongo baita.

Goierritarra

Herri arteko pilota txapelketan Zaldibiak galdu



Iraola eta Eskisabel

Zaldibiak Antzuloaren kontra jokatu du aurtengo Herri Arteko Pilota Txapelketako lehen kanporaketa. Hasierako partiduak Zaldibian bertan jokatu ziren, honako emaitza hauek eskuratu: infantiletan; Iraola eta Eskisabelek, 18 eta 2 irabazi zuten. Jubelinetan, Juaregi eta Sukiak, 18 eta 14, galdu; eta seniorse- tan, era berean, Mendizabal eta Lizasok galdu egin zuten, 22 eta 17. Lastima epaileetako batek, Garmendia jaunak, izan zuen hankasartzea, ona zen pilota bat txartzat eman baitzuen, eta momentu horretatik aurrera ia tanto guztiak sakez egin zituzten, gureak 16 eta 11 irabazten joatetik, 22 eta 17, galtzaile izatera pasatu.

Bueltako partiduak apirilaren 16an jokatu ziren Antzuloran. Zaldibiak berriro

ere 3 eta 1 galdu zuen, lehiaketatik kanpo geratuz. Nahiz eta txikietan gureak hamazortzi eta huts irabazi, jubeniletan eta afizionatuetan galdu egin zuten: 22 eta 9; eta 22 eta 8.

Antzuolarrak merezimendu osoz pasa dira aurrera, eta ezer azpimarkatzekotan, Muruamendiraz jubenilak, eskuin eta ezker, daukan jokia azpimarkatuko genuke. Zerbaitengatik da Euskal Herriko txapelduna.

Dantza sueltoko txapelketa

Udaletxeko Kultura Batzordeak antolaturik, aurtengo San Isidro Egunean, maiatzak 15, dantza sueltoko txapelketa izango da herriko plazan, eguadiako 12etan. Hamabost urtez goiko guztiek har dezakete parte. Partaideek euskal usadioan jantzi beharko dute. Hamar bikoterekin beteko da kupoa; dantzariak fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte. Epaimanahairen osaketaren berri alde aurretik eta bere garaian emango da; mahai honen erabakiaren kontra ez da gora jotzerik izango. Izenak Zaldibiko Kultura Etxean eman behar dira, maiatzaren 13ko arratsaldeko 7ak baino lehenen, 16 03 38 telefonora deituz.

Auzolandegiak

Besteak beste Zaldibiak ere izango du bere auzolandegia. Aurten etnografi lanetan arituko dira eta honako txanda

hauek daude antolaturik: bata, abuztuaren 1etik 15era eta bestea, abuztuaren 16tik 30era. Kasu batean zein bestean, 20 plaza daude. Azkeneko puntu honen gainean informazio gehiago nahi duenak jo beza Zaldibiko Kultura Etxera, telfnoa.: 16 03 38.

 **Rufino Iraola**

“Arparo, arparo!”

Ainhua Beristain zaldibitarra eta Ixabel Agirresarobe usurbildarrak antzerki ikasketak iaz amaitu ondoren Kafe- antzerki muntai bat egiteko asmotan lanean hasi eta dagoeneko emanaldi batzuk eginak dituzte, Zaldibian, Oiztzen, Pasai Donibanen, Usurbilen, Lasarten, Ordiziako Gaztetxean eta Beasaingo Loinatzen berriki. “Arparo, arparo!” antzezlan, inguruneak sortzen zizkien kezkak eragindako muntai da. Ikuspuntu desberdinak agertzen dira. Orduerditxo bat irauten duen honetan ximpletasuna da nagusi eta beraiek sortzen ez duten testu bakarra Artzeren olerki bat eta kondaira zahar bateko kopia bat dira. Orain arteko emanaldiak eta jendearen erreakzioak ikusita, gustora daude antzezleak; bi neska hauen lanak ez dira hor amaitzen, hasi berriak dira, baina Gipuzkoako Kafe-antzerki zirkuituan sartzeko asmotan dabilta.



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN



GOITGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
♦ Opil finak
♦ Eguneroko ogia
♦ Ogi bereziak
♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

BARANDI



TABERNA


Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

Etxezarreta paperfabrikak ez du desagertu nahi

Legorreta tradiziozko papertegi herria izan da Goierrin. Nork ez du izan herriaren sarreran dagoen paperfabrikaren berri, gaizki dabilela edo errekek botatzen duen kiratsa dela entzuteko ez bada ere?

1906an sortu zen Etxezarreta paperfabrika. Haize agerian lehortuz kartoi txikiak egiten hasi zen Etxezarretak eboluzio edo bilakaera geldia izan du. 20.ean paper jarraikorreko (kontinuo) makina eta pasta kimikozko instalazio bat jarri zuen. 65.ean, 90.eraingo iraungo zuen pasta mekaniko deritzaion sistimarekin jarduten hasi ziren. Ordutik bilketa selektiboko papera dute lehengai, kartazal, liburu, koadernu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko orrietan bihurtuko diren paper birziklatua egiten dutela. Beraien hornitzaileak paper txuriarekin dabilten enpresak dira, hauetako bat papera sailkatzen duten Legorretako Garmendia anaiak. Etxezarretako bezeroek eskatutako neurrietara moztu eta manipulatzeko Tolosako enpresa batetara bobinatan eraman ohi dutela papera esan digu bertako gerentea den Nikolas Perezek, berarekin izandako elkarriketalditxoan.

Orain 73 langile ditu Etxezarretak, 60.ean zituen 180 langileetatik urruti xamar. Orduan 3 makina zeuden, orain



Argazkia: Gazte Kontseilua

berriz bikoitza ekoizten duen makina bakarra dagoela dio Perezek. Etxezarretaren produkzioa urteko 15.000 kg. inguruetan dabil, nahiz eta urte osoan lan eginez gero 30.000 kg. tara iritsi daitekeen bere ekoizpen ahalmena. Inguruko paper biltegi gehienek atzerrietatik ekarritako papera erabiltzen dute. Ipar Europatik ekarritako papera hemen bertan ekoiztutakoa baino merkeagoa eta kalitate hobegokoa izaten baita orokorrean. Eta Legorretako Udalar biltegia dugu adibide garbia.

Hauek Espainia osora banatzen dute, Finlandiatik ekarritako papera. "Azken urte hauetan, paperaren prezioa asko jeitsi da. Multinazionalen esku dago papera produzitzea. Lehia handia sortu da ekoizlarien artean eta horren ondorioz nagusia prezioen beherakada izan da".

Zenbait eskari izan dituztela, eta orain dela gutxirarte egon diren lan-erregulazioari uko egin diote. Azkeneko urte hauetan papergintzaren mundua Goierrin desagertzera ez ote dihoan galdetu diogunean, "Zailtasun handiak ditugu, baina Etxezarretak ez du desagertu nahi. Birziklatzeko sektore honetan, dimentsio egokia dugula uste dugu. Kalitate oneko birziklatze bat dugu, nahiz eta inbertsio baten beharra izan", esan digu Perezek.

Bertso Jaialdia

Maiatzak 6an, ostirala, Legorretako Kultur Batzordeak, Aldundiaren laguntzarekin, bertso jaialdi bat antolatu du. Herri zineman izango da gaueko 10,30etan eta Egaña, S.Lizaso, Agirre, Peñagarikano, Murua eta Sorozabal bertsolariek parte hartuko dute. Gai-jartzailea, Joxe Mari Agirre "Txato" izango da.

 **Xabier Glez. Ezama**

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

GOIERRITARRA



88 96 12

Bi lerrotan

Ordizia Kirol Elkarteak, lehen futbol taldeko entrenatzailea bere postutik kendu du. Apirilaren 11n eginiko bileran, Antonio Peñalver-en ordeztu orainarte gazteen taldeko entrenatzaile izan den Luis Brit ezartzea erabaki zuten. Taldea sailkapeneko lehen postuetan dagoen honetan, aldaketa, hobeto jolastu eta preferentera igotzeko asmoz izan zela dirudi. Hala eta guztiz ere, apirilaren 9ko DVn Peñalver-ek zuzendaritzari egin zizkion kritika gogorak zerikusi handia izango zuten erabakian.

Beasaingo futbol taldea ere sailkapeneko goi aldean dabil, 6. postuan liga bukatzeko ihardunaldi bat falta denean. Hala eta guztiz ere, etxean ez dituzte behar hainbat neurketa irabazi eta horretan zerikusi handia izan du zalegoaren hoztasunak; hori dio Iñaki Eskisabel taldeko kapitainak. Olaberritarrak DVri adierazi dionez, futbol-zelaian egoten den tensioaren ondorioz, lehen minutuetan golik sartu ezean, asko kostatzen da partidua aurerra ateratzea.

Lazkaoko futbol taldeko jubenilak gogor ari dira lanean, lehen taldera igotzeko itxaropenarekin. LKEak jokalaria onenarentzat duen sarirako lehia honela doa: Aitor Altuna, 57 puntu; Oroitz Naldaiz, 53; Xabi Garmendia, 48; Imanol Urio, 36. Goleatzaile nagusiaren saria berriz: Imanol Rubio, 15 gol; Xabi Garmendia, 11; Eneko Aipurua, 8; Ander Oiarbide, 4.

Aitor Osa itziartarra izan da nagusi Beasain eta Lazkaoko txirrindulari afizionatuen lasterketetan. Fortaleza taldeko mutila bakarrik iritxi zen helmugara bi lasterketetan, 16 segunduko aldearekin Beasainen eta 13koarekin Lazkaon.

Txirrindularitzarekin jarraituz, Beasaingo Iberdrola taldea izan da 1. urteko kadete mailan gipuzkoako txapeldun. Andoni Lasaren gidaritzapean, Beñat Garaialde, Ion Lasa, I. Gaztañaga, Jakoba Korta eta Koldo Camachok osatzen zuten garaipena lortu zuen taldea.

Ordiziako igerilariak garaipen berria lortu zuten Frantzia aldean. Dordogne ibaiaren jexxieran, Jon Iturriozek irabazi zuen gizonezkoetan eta Olatz Mendizabalek emakumezkoetan.

Ordiziako atletak ere sasoiean daude, kadete mailako neskek Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten eta herrialdeko ordezkari izango dira Euskadikoan. Lortutako garaipen nagusiak hauek izan ziren: Erika Gonzalez, 3 km martxa; Beatriz Sancho, 100 m; Leire Iparragirre, 100 m hesiak; Idoia Soraluze, disko jaurtiketa eta Lidia Frias, 600 m-etan.

Oiangu Pilota Eskola sortu berria dute Ordizian, palazko modalitatea indartzeko asmoz. Lan txukuna egiten ari da Jesus Mari Albisu lehendakari bezala duen taldea. Bertan Goierri guztiko 20 gazte ari dira lanean eta pilotan jolasteaz gain prestakuntza fisikoari ematen diote garrantzia, horretaz heziketa fisikoa lizentziatuak diren Josu Beriain eta Jon Aranburu ardurtzen dira.

PACK JOVEN

BAUSCH & LOMB
La tecnología más avanzada del mundo en lentes de contacto

BAKARRIK
17.000 Pta.

- BAUSCH & LOMB ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN LENTEAK
- DISOLUZIO BAKUNEKO BI POTE
- LENTEAK ERAMATEKO ESTUTXEA
- ETA *Ray-Ban* ak OPA TUKO DIZUGU!!

MULTIOPTICAS
J. Larrañaga
ARRASATE - BERGARA
ORDIZIA

Ordiziako San Jose Erresidentziko Abesbatza

San Jose Korala 88.eko abendua-
ren eguberrian sortu zen, izen bere-
ko zaharren egoitzan. Bertan lan
egiten zuen Millan fisioterapeuta
ezagunak, adinekoak kanta-
tzen ari zirela, eta Prontxio Sarasola
ordiziar polifazetiko eta musikaza-
leari ba ote zituen galdegin zion. Bi
aldiz eskatu beharrik ez, pianojole
eta zenbait hizkuntzen jabe den hiz-
tun honi. *"Hala hasi ginen ostirale-
roko saioarekin eta jendea primeran,
oso ondo joan dira entsaioak"*, dio
Prontxiok. Abesbatzaren zuzenda-
riari bere emazte Itziar ere gehitu zi-
tzaion. Honen esanetan, barrutik
sentitzea da ajola duena, *"helburua,
behar bada ez da oso ondo abestea,
beraiek pozik sentitzea baizik"*. Ez da
lan txikia. Erresidentziko arduradu-
nek diotenez, kantatzen hasi eta be-
rehala konturatu omen ziren pilula
gutxiago hartu beharra zeukatela
bertako erresidenteek. Bertako bizi-
lagunez gain, kanpotik ere elkartu
dira korallera: Maritxu Odriozola,
Tere Gainza, Josetxo Beristain, Ma-
risol Ezeiza eta Arantxa Elustegi.
Azken biok ere badakite taldea zu-
zentzen.

Abesbatz tradizio handiko herri
honetan ez da oso ezaguna San Jo-
sekoa. Gipuzkoako zenbait egoitze-
tan kantatu izan dute, ordea. Erresi-
dente gehienak euskaldunak direnez,
euskaraz kantatzen dute asko, *"Goi-
ko Mendian"*, *"Adios ene maitea"*,
"Boga-boga", *"Maite"*, e.a. Sekula
kantatu ez zuen horko jende bat irri-
kitan da *"gimnasia"* egiteko; hastera




*Bixente Iruin, Simon Belauzaran, Fermin Sukia, M. Karmen Guruzeta, Josefa Lasa, Ni-
kasia Zabala, Aurelia Murua, Maria Andueza, Germana Luengo, M. Teresa Almorza,
Bitoria Sainz, Andresi Iturrioz, M. Milagros Carrasco, Inazia Berasategi, M. Pilar Arra-
tibiel, Eugenia Idarreta, Guadalupe Zugasti, Kandelaria Iza, Gregoria Ulaia eta Leandro
Garin, besteak beste.*

kostatu, baina gero gustora bukatzen
duenik ere bada. *"Terapia bezala,
dudarik ez, oso ondo datorkie. Alda-
keta bat ikusten dute beren egune-
rokotasunean, orduak hain luzeak
egiten zaizkie! Belaunaldi zaharrago
batekoak dira (irakurtzeko, telebista
ikusteko ohiturarik ez dute) eta giro
ezin hobea dugunez taldean, bada
partehartuz sentitzen dira protago-
nista"*, dio Sarasolatarrak. Beasain-
go erresidentzikoak ere enteratu zi-
ren Ordiziakoaren ekimenaz: imitatu
egin zituzten eta gaur arte martxan
dabiltza. Legazpikora joan eta han
ere egin zituen saioak beste koral bat

sortzeko ordiziarak. Alferrik.
Prontxiok ez du entenitzen norbaitek
gizarteari eskeintzeko zerbait eduki
eta beretzat gordetzea. Pretentsio
handiegirik gabeko abesbatza izan
arren San Josekoa, bertakoen aho-
tsak hezitzen, tonuak (pianoak, for-
teak...) eta erregulazioak errespetat-
zen saiatzen da. Lerro hauen helbu-
rua besterik ez da: Goierrialdeko
zaharren egoitzetan gutxienez anima
daitezeela 2-3 zaleen laguntzarekin
abesbatzak sortzen. Merezi omen du.

 **Mikel Aramendi**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA